

Lau anaia-arrebak

Gure etxetik gertu bizi ziren, etxe txiki eta kaskar batean; teilatu gaineko zirrikituetatik ura irristatzen zen euria ari zuenean. Baina etxe hartan zorionsu bizi ziren gurasoak eta anai-arrebak. Eskolatik ateratzen ginenean, ni eta beste lagun asko joaten ginen haiengana jolastera. Etxe hartan beti zegoen tokia bertaratzen zenarentzat eta umorea, jolasak eta kontu ederrak ez ziren inoiz falta.

Baina zorigaiztoko egun batean, ezuste bat suertatu zen eta anai- arriben guraso zintzoak hil ziren, gure lagunak umezurtz utzita. Herriko guztiek hartu genuen pena handia; den-denek maite genituen gure lagunak gurasoak; gainera, haiek bakarrik geratu ziren, triste eta pobre nora joan ez zekitela. Herriko gizon-emakume askok lau anai-arrebak adoptatzea pentsatu zuten, aurrerantzean haiei babes eta kontsolamendua eskaintzeko.

Baina lau gazte haiek ez zeuden horretarako: nahikoa nagusiak ziren lauak eta bere bizimoduari aurre egingo ziotela erabaki zuten. Lau haizetara atera ziren beraz, zazpi urteren buruan berriz elkartzeko hitza elkarri eman ondoren. Atera baino lehenago etxean zegoen gauza bakarra banatu zuten: ogi handi bat, hain zuzen ere. Harekin lau zati egin zuten eta norberak berea hartuta, abiatu ziren bidean aurrera, elkarri agur egin ondoren.

Zazpi urteak pasa ziren eta banan bana ailegatu ziren anai-arrebak urruneko herrialdeetatik. Besarkada handiak eman zizkieten elkarri, ondoren kontatzen hasi ziren izandako bizipenak, ikasi zituzten ofizioak eta herrialde haietatik ekarri zituzten tresna mireagarriak.

Ahizpa zaharrena hasi zen hizketan, esku artean teleskopio bat erakusten zien bitartean: elur eta izotz azpian bizi zen herrialde batean eman zituen zazpi urteak. Hango optiko batek hartu zuen ikasle gisa eta bere ofizioa erakutsi zion. Etxera bueltatu bezperan, neska gaztea eta nagusia atera ziren biak ala biak koba-zulo baterantz. Han izotz artean zegoen kristal antzeko zerbait hartuta, etxera bueltatu ziren. Nagusiak kristal moduko hura hartu eta teleskopio bat egin zuen. Harekin aurrerantzean berak ikusi nahi zuen edozer gauza ikusi ahal izango zuen. Arreba zaharrenak zorro bat ireki eta bere teleskopioa erakutsi zien anai-arrebei, eta hauek mirestu zuten nagusiak arrebari egin zion oparia.

Bigarren anaia patrika txiki bat miatzen hasi zen. Zilarrezko orratz-ontzi batetik jostorraz guztiz fin bat atera zuen. Ekialde urrunean pasa zituen urte haiek, zeta sortzen den lekuan. Jostun batek hartu zuen ikasle eta ofizioaren sekretuak erakutsi ondoren, jostorraz hura oparitu zion, bere esker ona erakusteko. Jostorrazak edozer gauza josteko balio zuen, eta anai-arrebei erakutsi zien harro.

Arrantzale bat aurkitu zuen hirugarren anaiak bere ibilbidean. Ofizioa erakutsiko ziola eta haren ontzian bidaiatzea proposatu zion, bere zorroan zuen ogiaren truke. Bitan pentsatu aurretik, arrantzalearekin banatu zuen bere ogia eta Mendebaldera abiatu ziren biak, abentura bila. Herrialde harrigarriak ezagutu zituzten eta jende bitxiekin partekatu zuten zuten guztia, baina bueltako garaia iritsi zenean, arrantzaleak opari bat eman zion esker onez. Patrika batetik atera zuen opari hura; sare fin eta txiki bat zen, ia-ia ikusezina. Sare hura harrapatzen zuena bertan geratuko zen bere nagusiak, anaia hirugarrenak, hitz magiko batzuk esan arte; izan ere, sare hura hautsi-ezina zen.

Laugarren neskak isil-isilik begiratzen zien bere anai-arrebei. Zapi handi batez estaltzen zuen bere burua eta gorpuzkera osoa. Ez bat eta ez bi, anai-arrebek beren kontakizuna amaitu zutenean, aurpegia estali zuen, beste guztien begi-bistatik desagertu zen arte. Harrituta geratu

ziren denak, ahizpa txikia aurkitu nahian, eta honek, tarte bat zabaldu zuen zapi hartan, begiak anai-arreben bistan utzi zituelarik. Hegoaldera eraman zuen bere bidaiak, basamortu zabal batera. Han bizi ziren lapur talde batekin egin zuen topo eta haiekin geratu zen hurrengo zazpi urteetan. Adi-adi begiratzen zien lapurrei eta konturatu zenerako haien ofizioa ikasi zuen. Buelatzeko ordua ailegatu zenean, lapurren buruak kutxa handi bat zabaldu zuen, bertatik neskak jantzia zuen zapi harrigarri hura atera eta bere begirunea erakutsita oparitu zion. Zapi hark ezkutatu egiten zuen haren pean estaltzen zen edonor.

Egun batzuk eman zituzten kontu kontari, haien belarrietara berri kezkarri bat iritsi zen arte: herensuge batek jauregiko altxorra lapurtu eta herrialdea dirurik gabe utzi zuen. Lau anai-arrebak berehala jarri ziren martxan: ahizpa zaharrenak bere teleskopioa hartuta, ikusi zuen argi eta garbi altxorra non zegoen. Bigarren anaiak itsasontzi handi bat alokatu eta lauak abiatu ziren herensugea suntsitzeko asmoz.

Koba-zulo batean bizi zen herensugea, eta arreba txikia, ikusezina bihurtu zen zapi miresgarria jantzita; isilka-misilka kendu zion altxorra herensugeari gero. Lauak itsasontzira sartu ziren altxorra hartuta, baina herensugea esnatu egin zen eta faltan bota zituen urrea eta harri bitxiak. Hegan abiatu zen lapurren atzetik, eta ikusi zituenean, ahotik sua zeriola amildu zen indar handiz. Baina bigarren anaiak berehala bota zion sare miresgarria, eta herensugea harrapatuta geratu zen sare hartan, ziplo erori zen gero itsasontziaren gainera. Anaiak orduan hitz magikoak esan zituen eta sarea bere eskuetara bueltatu zen, baina mamutzarra itsasoak irentsi zuen.

Hondamendi handia suertatu zen itsasontzian ordea, mamutzarraren pisuaz erditik zartatu zen eta hondoratzeko arriskuan gertatu ziren denak. Jostunak orduan, edozer josten zuen jostorratz magikoa atera zuen eta ziztu bizian josi zituen itsasontziaren zatiak. Beraz, anai-arrebak bizirik atera ziren ataka hartatik, eta beren herrialdera bueltatu ziren altxorra hartuta.

Oso harrera ona egin zieten herrian, eta aberastasun handiak eman zizkieten herria hondamenditik libratu zutelako.